

Donostia'n bildu dira, Diputazio-jauregian, Arrue, Haritschelhar, Irigaray, Irigoyen, Lafitte, Larzabal, Lojendio, Mitxelena, Satrustegi eta Aita Villasante euskaltzainiak, eta Artola, Artetxe, Berriotxoanaia, Etxaniz, San Martin, Zabala eta Zubikarai urgazleak.

Agorrilleko batzar-agiria onartua izan da; azkenekoa, berriz, Urrillekoa, urren-gorako gelditu da.

Aita Villasante'k prestatu berria duen *Gero*-ren argitaraldiaz izan da izketa: nola ordainduko ditugun eta saldu Euskaltzaindiak erosi dituen 400 aleak. Zadorlariari baimena eman zaio datorren illaren asieran bidal ditzan 25.000 edo 30.000 pezeta. Euskaltzaindiaren dirutik, Barcelona'ko Juan Flors argitaratzaileari.

Bilbao'ko etxeko lanez mintzatu da gero Irigoyen. Egokiera bat izan da bear genduen langillea artzeko: Maria Angeles Alberdi, Gorozika'koa, euskaldun garbia eta maistra, orain Deustu'n ikasten ari dena. Ikastaldiak goizetik dituen ezker, Euskaltzaindiko lanak arratsaldean ar ditzake. Irigoyen, San Martin eta Zubikarai'rekin alde batetik eta zadorlariarekin bestetik mintzatu ondoren, lanean asia da, 2.500 pezeta illean artuko dituelakoan. An guztia ontzat artua izan da, ao batez.

Gogora dakar Lojendio'k oraindik ere utsik dauzkagula diru- eta liburu-zaintza, izatez eta egitez beintzat. Guztion iritziz, idatzi egin bear die zadorlariak Aita Akesolo eta Erkiaga'ri eta baita ere Gorostiaga euskaltzainari, ea egoera orretatik irteteko biderik arkitzen ote den.

Bertsolari-sariketaz Arrue mintzatu da. Zarauz'koa egin ondoren, Gipuzkoa'n Eibar'ko saioa izango da datorren illaren 6-ean eta urren-go igandean, Tolosa'n, Gipuzkoa'ko azkena; urren-goan, berriz, Bilbao'n Euskaljerri osoko azken-aurrekoa. Donostia'ko azkena, noski, Anoeta'ko pelota-plazan egingo da.

Pedro Díez de Ulzurrun urgazlearen eskutitza aipatzen du Irigoyen'ek: epai-maiekoen artean, azken-saioan agertu ditezkeanak. Larzabal'en iritziz, nori bere egitekoea egotzi bear litzaieke maikoei eta gero nork bere ustea agertu, aldez aurretik elkar artu gabe. San Martin'ek dio Bidasoa'z beste aldetik iru bertsolari bear genituzkeala gutxienez eta komeni dela emendik aurrera an ere emengo antzera egin dezaten txapelketa. Aita Zavala'ren ustez Gipuzkoa'ko bertsolariek besteek baiño ate estuagoa arkitzen dute azken-saioan, besteak baiño ugariagoak direlako: zuzenago litzake zenbakiaren arabera eta neurrira autatzea azkenekoa agertu bear dutenak.

Baioa'ko erabakien inguruan, iru iritzi irakurri dira: Aita Fernando Mendizabal'ena ez txit aldekoa eta Aita Villasante eta Mitxelena'rena, elkarren antzekoak eta, erabat esateko, erabaki oriek ontzat artzen dituztenak. Onenaz garbiago mintzatu barko du Euskaltzaindiak urren-go batean.

Larzabal'ek, Iratzeder'en izenean, adierazten du Baiona'ko apezpikuak, Erroma'tik itzultzean, zabaldu duen berria: euskera ontzat artua izan dela Liturgiarako. Eta orrexegatik bearrezkoa litzakela beste eliz-barrutietako euskaldunentzat ere liturgigaiak ahalik eta berdintsuena ematea.

Komeni litzake, dio Irigaray'k, Iruñe'ko arzapezpikuari deiren bat egitea, Gipuzkoa'n ere liturgiaren euskeratze-lanak aurrera doazen ezkeru. Bereala egin bear litzake dei ori, Satrustegi'ren ustez, urrengo urteberrietatik aurrera erdera Nafarroa'n sartzea erabakia dagoen ezkeru, gero nekez aurkituko baitu gure izkuntzak lekurik. Guztion iritziz, eske ori egin bear da eta biderik egokiena dirudi zadorlariak Diez de Ulzurrun urgazleari agertzea Euskaltzaindiaren gogoa, berak eta berak deritzanek arzapezpikuarekin mintzatu ditezen.

Zubikarai'k dio badela datorren illean Ondarroa'n teatro eta olerki-sariketa. Epai-maiko autatu dira, lehenbizikorako, Iñaki Beobide, Manuel Ziarsolo eta Alfonso Irigoyen; bigarrenekorako, Aita Lino Akesolo, Fernando Artola, Juan Maria Lekuona, Juan San Martin eta Alfonso Irigoyen. Beste sariketa batzuek ere badaude eta ortarako Manuel Ziarsolo, Jesus Maria Arenaza eta Alfonso Irigoyen izendatu dira. Izen oriek eman bekizkio Ondarroa'ko alkateari.

Oi den otoitzarekin bukatu da batzarrea.